

TREBAKUNTZA 2020-10: BEZALA, BEZALAKOA

Gaztelaniaren eraginez, sarritan txarto erabiltzen ditugu “bezala” eta “bezalako” hitzak. Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Bost urtez ibili zen Bilbon irakasle bezala.*
2. **Zuzendari bezala, ez dut zertan fitxatu.*
3. **Liburua idaztea bidaia bat egitea bezalakoa izan da.*
4. **Deialdiak eta aktak bezalako agiriak euskaraz bidaltzen ditu.*

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

1. Ad. Ezin dira gaztelaniazko *como* guztiak *bezala*-rekin ordezkatu. Batzuetan, ez da ezer jarri behar:

Bost urtez ibili zen Bilbon irakasle.

2. Ad. Halaber, ez dira gauza bera *(-n) bezala* eta *-(e)nez*.

Zuzendari naizenez, ez dut zertan fitxatu.

3. Ad. Ez nahastu *bezala* eta *bezalako* hitzak.

Bezalako hitzak NOLAKOA galderari erantzuten dio, eta **bezala** hitzak, ordea, NOLA galderari.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Kontuz ibili *-tzea* bukaera duen sintagma bat badugu. Euskaltzaindiaren iritziz, badirudi nominalizazioak ezin duela *bezalako* hartu, *bezala* baizik:

Liburua idaztea bidaia bat egitea bezala izan da.

4. Ad. Gero eta sarriago entzuten dira honelako esaldiak:

**Deialdiak eta aktak bezalako agiriak euskaraz bidaltzen ditu.*

Hobe hala nola, besteak beste edo esaterako esapideak erabiltzea.

Zenbait agiri euskaraz bidaltzen ditu, hala nola, deialdiak eta aktak.

Zenbait agiri euskaraz bidaltzen ditu, esaterako/besteak beste, deialdiak eta aktak.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699